

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3026

AGINDUA, 2025eko ekainaren 26koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025. urtean egingo edo hasiko diren nazioarteko kategoría absolutuko kirol-lehiaketa ofizialetan eta kategoría absolutuko emakumeen taldeko kirolen estatu mailako ligetan parte hartzea finantzatzeko aurkezten diren dirulaguntzen eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen balorazio-batzordeko kideak izendatzen dituen eta batzorde horren osakeraren berri ematen duena.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2025eko ekainaren 10ean, agindu hau eman zuen: 2025. urtean egingo edo hasiko diren nazioarteko kategoría absolutuko kirol-lehiaketa ofizialetan eta kategoría absolutuko emakumeen taldeko kirolen estatu mailako ligetan parte hartzea finantzatzeko dirulaguntzen deialdia arautzen duena.

Agindu horren 10. artikulua ezartzen du ezen, alde batetik, balorazio-batzorde bat osatuko dela aurkezten diren eskabideak eta dokumentazioa aztertzeko, eta, bestetik, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela batzordekide izateko.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osakeraren berri ematea. Hauek izango dira Balorazio Batzordeko kideak:

Batzordeburua: Elisabet Altube Bengoa (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko arduraduna).

Batzordekideak:

- Aitor Alberdi Rodriguez (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako teknikaria).
- Leire Bengoa Luengo (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako teknikaria); batzordeko idazkaria izango da.

Bigarrena.– Agindua ematea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, herritar oro jakitun izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 26a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BONGOETXEA OTAOLEA.